



PKT
ENTERES

HORMAK: EZ DAGOEN PRESENTZIA

Adierazpen grafikoa hirian.
Adierazpen artistikoaren inguruan kezka agertzen duten zenbait gaztek haien burua agerian jartzen dute inguruko hormak konturatu gabe. Talde-espereintzia da eta bere balioa partekatua izatean datza.

HELBURUAK	METODOLOGIA	PARTE-HARTZAILEAK	IRAUPENA
<ul style="list-style-type: none"> • Taldearen jarduerak zuzenean ezagutzea. • Gazteen jardunean praktika egokiak sustatzea. • Graffitiaren eta adierazpen hiritarren inguruko hausnarketa bultzatzea. • Gazteen arteko lotura parte hartzaile berriak sortzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Graffitiaren inguruko eztabaida. • Graffiti bat egitea. • Sormen-fasea. • Antolamendu-fasea. • Gauzatze-fasea. • Hausnarketa-fasea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Parte-hartzaile kopurua: 5. • Adina: 14 – 18. 	<ul style="list-style-type: none"> • 5 saio: 2h/s.

HORMAK
IKUSIA IZAN GABE, AGERIAN

BONUS TRACK: AGENDA DEIALDIAK IKASTAROAK



2006ko azaroko azala.

0. TESTUINGURUA

Lantegi hau *PKT*expreses Lantegi-programaren (2006-2008) barruan kokatzen da. Vitoria-Gasteizko Udalaren Gazteria Zerbitzuaren menpe sortutako ekimena da eta hiriko hainbat gazte-kolektiboekin batera, prozesu parte hartzaile eta kolaboratzaileak bultzatzen ditu, talde-lana, inguruaren azterketa eta espiritu (auto)kritikoa sustatuz.

Lantegietan landutako edukiak *PKT*enteres aldizkarian argitaratzen dira (azalean eta bi orrialde). *PKT*enteres (PKT) 14 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzendutako hilero argitaratzen den informazio-aldizkari dinamiko eta parte hartzailea da, Vitoria-Gasteizko Gazteria Sailaren menpe dago eta Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoarekin (GAUB) elkarlanean egiten da.

Info+ *PKT*enteres: www.vitoria-gasteiz.org/pkntenteres

Info+ GAUB: www.vitoria-gasteiz.org/omij

1. HORMAK: EZ DAGOEN PRESENTZIA

*PKT*expreses lantegi-programan egindako lehen lantegia izan da hau. *Adierazpen artistikoaren* inguruan kezka agertzen duten gazteei zuzendutako lantegia da eta gazteei komunikatzeko eta parte hartzeko bide berriak erakutsiz, hiriko gazte kulturarekin zerikusia duten adierazpideak sustatzeko asmoa du.

HORMAK, ez dagoen presentzia da lantegiari eman zaion izena. Hasiera batean “adierazpen grafikoa hirian” izena pentsatu zen, baina taldearekin egindako lana kontuan hartuta, behin betiko izena egokiagoa iruditzen zaigu.

*PKT*enteres aldizkariako kolaborazioak, aldiz, bertan erabiltzen den hizkuntzarengandik hurbilago dagoen *HORMAK*, *ikusia izan gabe*, *agerian geratu* izenburua izan du.

2. HELBURUAK

Hona hemen *PKT*expreses lantegien helburu orokorrak:

- *PKT*enteres aldizkaria gazteengana hurbiltzea eta euren adierazpide eta tresna gisa sentiaraztea.
- Gasteizko gazteen arteko parte-hartzea eta elkarlana sustatzea.
- Gazteen beharrak ezagutzea eta haietara hurbiltzea.
- Gaur egungo gazteria indartzea eta hari hitza ematea.
- Talde-lana sustatzea
- Nerabeen arteko elkarrizketa eta espiritu kritikoa bultzatzea.
- Gazteen eta erakundeen arteko hurbiltzea-formulak sortzea.
- Gazteen artean parte hartzeko lotura berriak sortzea.
- Inguruko mundua aztertzeke duten gaitasuna suspertzea.
- Hiritar aktibo gisa sormenean eta edukien zabalkundearen bizkortzea.
- Nerabeen interesak eta kezkak ezagutzea.

*PKT*expreses lantegiak Gasteizko Udalaren lantegi-programan kokatzen dira. Bertan sortzen diren eztabaidek eta edukiak *PKT*enteres aldizkariaren edukiak osatuko dituzte.



Lantegitik ateratako eta aldizkarian argitaratutako azken edukiak.

Jaits ezazu *PKT*enteres 42.zbk. (2006ko azaroa) www.vitoria-gasteiz.org/pkntenteres



“Horma-irudia ez da berez helburua, lagunekin elkartu eta esperientziak partekatzeko aitzakia baizik”.

- Haien sormen-gaitasuna bizkortzea.
- Haien jarduerak aurrera ateratzeko tresnak eskaintzea.

Hormak: Ez dagoen presentzia lantegiaren helburu zehatzak honako hauek dira:

- Egiten dituzten gauzak zuzenean ezagutzea.
- Haien jardunean praktika egokiak bultzatzea.
- Graffitiaren eta adierazpen hiritarren inguruko hausnarketa sustatzea.
- Gazteen artean lotura parte hartzaile berriak sortzea.

“Graffiti norberaren burua agerian jartzeko eta adierazteko modua da, ez dagoen presentzia, ematen duen poztasuna ez da azaltzen erraza”.

3. EDUKIAK

Graffiti eta kultura hiritarra.
Graffitiaren historia eta gaur egungo egoera.
Zergatik eta zertarako; graffitiaren erabilerak.
Graffitiak egiteko prozesua eta materiala, antolaketa eta motibazioa.



4. METODOLOGIA ETA EKINTZAK

Metodologia analitikoa, parte hartzailea eta sortzailea. Gure asmoa da gazteak eurak izatea haien jardueren erreportari, graffiti bat egiteak dakarrenaren inguruan hausnarketa egin dezaten. Prozesuaren bukaeran, gazteek graffiti bat egingo dute.

Sormena / hausnarketa formaren eta edukiaren inguruan.
Ekintzaren antolaketa.
Ekintza gauzatzea.
Hausnarketa.

5. LANTALDEA

Parte-hartzaile kopurua: 3-6 lagun.

Adina: 16 – 22 urte.

Sexua: Talde misota.

Gasteiz hiria eta inguruak ondo ezagutzen dituzten gazte antolatu eta gogotsuak dira. Musika, diseinua, ilustrazioa, kirola, lagunekin egotea, etab. interesatzen zaizkie eta **pinturak eta graffitiak elkartzen ditu alde batetik, eta proiektu berrietan parte hartzeak eta haien burua ezagutzera emateak bestetik**. Pasio honek hamaika esperientzia trukatzeko aukera ematen die elkartzen diren bakoitzean.

IA18 egitasmoak antolatutako beste jarduera batean parte hartu zuen gazte batek lagundu zigan taldearekin kontaktua egiten.

Graffitiak eta kultura hiritarrak batzen dituen lagun taldea da.





“...antzeko jendearekin esperientzia partekatzea, baina ez bakarrik lagunak garelako, baizik eta gure interesak eta mundua ikusteko modua berdintsuak direlako.”



“...graffitiaren munduan garrantzitsuak diren kodeak daude, esaterako, ezin da beste baten marrazkia estali edo debekatutako

6. EGUNAK ETA ORDUTEGIA

2006ko iraileko eta urriko 5 egun.

Irailak 23.....2 h (16:00-18:00h).

Irailak 30.....2 h (16:00-18:00h).

Irailak 06.....2 h (16:00-18:00h).

Urriak 07.....2 h (16:00-18:00h).

Urriak 09.....2 h (16:00-18:00h).

7. KOKAPENA

Lantegi hau zenbait lekutan egiten da. Gazteekin elkartzen garenean, kalean bertan eta haien ohiko lekuetan egiten dugu (tabernak, lokalak, etab.). Lantegiaren beste alderdia horma-irudia egiten duten lekuan izango da.

8. MATERIALA

Materiala:

- Spray poteak, koloretakoak eta pitadunak. (Prozesuan zehar denen artean erabakiko dugu materiala).

Azpiegitura:

- Elkartzeko lekuak.
- Horma eta lan egiteko ingurune hiritarra.

Parte-hartzaileek ekarri beharreko materiala:

- Koadernoak eta zirriborroak egiteko arkatzak.

9. EBALUAZIO-ADIERAZLEAK

Lantegia ebaluatzeko parte-hartzaileekin egindako ebaluazioaz gain, honako faktore hauek hartuko ditugu kontuan:

- Parte-hartze aktiboaren maila (bertaratzea, motibazioa...).
- Gazteen gogobetetze-maila (gazteen ebaluazioa).
- Harreman eta enpatia maila.
- Taldearen harreman pertsonalak.
- Taldearen hausnarketa-gaitasuna.
- Sormen-gaitasuna.
- Taldearen espiritu kritikoa eta autokritikoaren maila.
- Lantegian egindako gauzen eta emaitzen maila.



“Margotzea ekintza kolektiboa da eta lagunen parte-hartzea ezinbestekoa da.”



Graffiti beti da ustekabeko edo zalantzazko esperientzia eta hain zuzen, horretan datza bere interesa.

10. LAN-ERANSKINAK

Hurrengo eranskinetan lantegiaren saio bakoitzeko bidai orria topatuko duzu.

- 1eranskina:** 1. saioa
- 2eranskina:** 2. saioa
- 3eranskina:** 3 eta 4. saioak
- 4eranskina:** 5. saioa
- 5eranskina:** 5. saioa

11. KONTAKTUA

Lantegi hau **IA18** egitasmoaren barruan kokatzen da. **IA18** ekintza kulturalak sustatzeko programa da. Nerabeei ematen die hitza proposamen desberdinak aurkeztuz eta hiritar aktibo gisa haien munduaren definizioan parte har dezaten bultzatuz: haien imaginarioa, baloreak, interesak, kezak, etab.

IA18

Aretxaga, 10
48003 Bilbao
946 053 468

www.casitengo18.com

info@casitengo18.com

Fitxa hau Creative Commons 3.0 España baimenarekin erregistratu da. Aske zara zure taldearekin lantegi hau egiteko, baina gogora ezazu ez dagoela formula magikorik eta hobe dela edukiak zure testuinguruaren eta taldearen beharren arabera moldatzea.



<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/legalcode.es>

Fitxa hau Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzarekin egin da.





1. SAIOA

HELBURUAK

Egiten dituzten gauzak zuzenean ezagutzea.
Graffitiaren eta adierazpen hiritarren inguruko hausnarketa sustatzea.

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
10 min.	PKTexpreses aurkeztu.	PKTexpreses.	PKTenteres.
15 min.	Lantegia azaldu.	Lantegiaren <i>planing-a</i> .	
20 min.	Aurkezpenak.	Parte-hartzaileak.	
80 min.	Graffitiaren inguruko elkarrizketa eta eztabaida.	Zer da graffiti? Nork hartzen du parte graffiti egiten? Zertarako egiten da? Zein funtzio du?	Graffitiaren inguruko informazioa eta materiala.

PKTaren aurkezpena ----- **10 min.**
Aldizkaria azaldu. Edukien, kolaborazioen, espirituaren... aurkezpen laburra.

Lantegia azaldu ----- **15 min.**
Lantegia azaldu: Hormak: Ez dagoen presentzia. Lantegia zertan datzan azaldu, planing-aren azalpen laburra.

Aurkezpenak ----- **20 min.**
Taldekoko partaideen aurkezpen laburra. Aurkezpenetan, bakoitzak graffitiarekin duen harremanaren inguruko iruzkin laburra egingo du.

Graffiti: Nola erakutsi ----- **80 min.**
Graffiti kontzeptuarekin lan egingo dugu; nola erakutsi jendeari graffiti zer den eta nola margotzen den horma-irudi bat.
Gure lana laguntzea izango da eta elkarrizketa eta enpatia erabiliz, etengabe gazteak bizkortzea.



2. SAIOA

HELBURUAK

Gazteen jardunean **praktika egokiak** sustatzea.
 Gazteen artean **lotura parte hartzaile berriak sortzea**.
 Nerabeen artean **elkarrizketa eta espiritu kritikoa** sustatzea.

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
15 min.	Ongietorria.	Norberarenak.	
30 min.	Eztabaida.	Margotzearen ekintza. Margotzearen esanahia. Nola antolatzen dira horma bat margotzea pentsatzen dutenean.	
45 min.	Graffiti egiteko erabakiak hartu.	Lekua, noiz, nola eta zer.	Arkatzak eta errotuladoreak. Zirriborroak egiteko koadernoak.
30 min.	Beharrezkoak diren ekintzak.	Hormetan lan egiteko baimena. Materiala erosi.	

Ongietorria-----**15 min.**
 Parte-hartzaileen aurkezpen laburra.

Eztabaida-----**30 min.**
 Lantegia hasi aurretikoen planteamendua, prozesua eta graffiti egitea.
 Margotu aurretiko hausnarketa, margotzearen esanahia, zer margotu...
 Esanahien inguruko eztabaida. Horma bat margotzea pentsatzen dutenean nola antolatzen diren ikusiko dugu.
 Esperientzia kolektiboa da, antolatutako eta hitzartutako (zer, nola, non...) helburuari esker, elkarrekin egiteko aukera dute eta hain zuzen, esperientziaren balioa partekatua izatean datza.

Graffiti egiteko erabakiak hartu -----**45 min.**
 Parte-hartzaile guztien artean lekua, noiz izango den, nola egingo den eta zer margatuko den erabakiko da.
 Gaia denen artean erabakiko da.
 Gaia erabakita, bakoitzak bere sinadura eta irudia egingo ditu zirriborroan.
 Denen artean eta zirriborroak ikusita, erabiliko diren koloreak erabakiko dira.

Graffiti egiteko beharrezko ekintzak -----**30 min.**
 Lekua lortu, margotzeko baimena duen horma bat Gasteizen.
 Behar diren pintura-poteak erosi.



3^a SAIOA

HELBURUAK	Talde-lana eta praktika egokiak bultzatzea. Gazteei tresna askatzaileak eskaintzea.
------------------	--

DENBORA	EKINTZAK	EKUDIAK	MATERIALA
120min.	EKINTZA-FASEA Graffiti egin. Ekintza dokumentatu.	Graffiti Talde-lana. Dokumentazioa.	Margoak, pitak, zirriborroak... Argazki-kamera.

EKINTZA-FASEA-----**120 min.**

Graffiti egin.

Graffiti-jardunaldia. Gaurko saioa margotzeko erabaki duten lekuan bertan egingo da.

Ekintza dokumentatu.

Parte-hartzaileetako batek horma-irudiaren prozesua grabatzen du eta argazkiak ateratzen ditu dokumentazio ona izateko.

4^a SAIOA

HELBURUAK	Talde-lana eta praktika egokiak bultzatzea. Gazteen sormen-gaitasuna sustatzea.
------------------	--

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
120 min.	EKINTZA-FASEA Graffiti bukatu. Ekintza dokumentatu.	Graffiti Talde-lana. Dokumentazioa.	Margoak, pitak, zirriborroak... Argazki- eta bideo - kamera.

EKINTZA-FASEA-----**120 min.**

Graffiti bukatu.

Graffiti-jardunaldia. Ekintzaren bigarren saioan graffiti bukatuko dugu.

Ekintza dokumentatu.

Parte-hartzaileetako batek horma-irudiaren prozesua grabatzen du eta argazkiak ateratzen ditu dokumentazio ona izateko.



5. SAIOA

HELBURUAK	Nerabeen arteko elkarrizketa eta espiritu kritikoa sustatzea . Inguruan duten munduaren azterketa-gaitasuna bizkortzea . Gazteak hiritar aktibo gisa suspertzea sormena eta edukien zabalkundea erabiliz .
------------------	--

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
60 min.	Eztabaida.	Lantegiaren esperientzia.	Dokumentazioa. Irudiak eta testuak.
30 min.	Jasotako irudiak ikusi.	Nola azaldu esperientzia irudiekin. Nola eta zer komunikatu nahi da.	
30min.	Irudien eta testuen aukeraketa.	Irudiak eta landutako esaldiak.	

Eztabaida-----**60 min.**

Lantegiaren inguruko eztabaida, graffitiarekin izandako esperientziaren inguruan eztabaidatu. Edukiak idatziz begiratu eta prozesuaren eta esperientziaren balorazio orokorra egin. Helburua da gure lanaren balorazioa egitea ekintzaren sustatzaile gisa, baina baita beraiena ere, parte-hartzaile gisa.

Jasotako irudiak ikusi-----**30 min.**

Graffitia egiten zen bitartean jasotako irudiak ikusi, irudi hauen bitartez azalduko da esperientzia argitalpenean. Prozesuaren irudikapena nolakoa izan behar den planteatzen zaie gazteei, hau da, aldizkariko erdiko orrialdeak izan beharko lukeen egitura.

Irudien eta testuen aukeraketa-----**30 min.**

PKTenteres aldizkarian esperientzia azaltzeko erabiliko diren irudien aukeraketa. Irudiak eta testuak aukeratu, lantegia laburbiltzen duten esaldiak eta esperientzia komunikatzen duten irudiak, hain zuzen ere.